

Arima naufrago bakartiak

Liverpool. 1814ko urriaren hamazazpia, Acushnet itsasuntziko marinelek ez zekiten zein zen heuren bidaiaren helburua, Afrika hegoaldeetik iragan behar zutela salbu. Beltzez jantzitako agure batek, "deabruarekin itsasoratzen bahaiz berarekin egin beharko duk bidaiia" esan zion grumeteari, kaian, baina mutikoak ez zion errefracuari garrantzirik eman. Eguerdirako belak zabaldu eta, haizea aldeko, abiatu ziren hegoalderantz.

Belak beterik, uhainak laban bortitz batez bezala ebakitzen ziren untxiaren aurrean. Kalatxoriek, hagen artetik silioka, luzaroan lagundu zuten, eta izurdeek ere, egun oskarbi eta gau izartsuan, bidaien arnasa den brisara hozkirriarekin. Gorputz indartsu eta harro bat zen Acushnet izeneko belero hura itsaso zabalean, bere merkatari eginbideetarik ez okertu ez berandutuko zenik ez zirudiela. Lehen goizaldean marinel irlandar bat zegoen lema zaintzen. Kriseilu ahul baten antzera argitzen zuen ilargiak, uretan zilarrezko bide bat erakutsiaz, haizea suabea eta hotza, izarrek beren azken keinuak egiten, olatu malenkoniatsuak. Lemazainak dei misteriosu bati amore emanaz, zilar bidera gidatu zuen untxia. Marinel irlandarra leman zegoen oraindik, gaua egun bilakatu zenean, eta ekialdean ortzea eta ura larrosen koloreaz tindatzen ikusi zuen. Lehorra urrun utzia zuten eta ez zen inguru guzian itsasertzik igartzen.

Egunsenti hura ez zen izan besteen gisakoa, baina ez zen untxi haretako inor ohartu. Argi hastearen ederraz eta itsasoaren bareaz mintzatu ziren batzuk, baina garrantzirik eman gabe. Zerbait gertatzen ari zelako zeinuak, hala ere, ugari ziren. Kalatxori bat agertu zen branka aldean hilik, zauririk gabe. Eskoziar marinel batek sorterriko kantu bat abestu nahi ukan zuen, eta ahazturik zeukan. Upeletik ura hartzera joanik, hatsa zerion urari, eta ezin zen handik edan. Zerbaiten zeinu nabarmenak ziren, baina ez zituen inork aintzat hartu. "Ekaitza ekarriko du" esan zuen soilik, marineletarik batek.

Joseba Sarrionandia, *Narrazioak*, Elkar, 1993

Hiztegia :

Errefrau : atsoitiz

Labana : ganibet

Kalatxori : antxeta

Oskarbi : hodeirik gabe

Hozkirri : fresko

Kriseilu : argiontzi

Suabe : leun

Branka: proue

BACCALAURÉAT GÉNÉRAL ET TECHNOLOGIQUE

ÉPREUVE : **BASQUE (Batua)**

Ce sujet comporte deux pages.

Page 1/2

I - ULERMENA : (10 puntu)

Les élèves de série S ne répondent pas à la question 4.

1. Zein motako itsasontzia da Acushnet ? (L/2 ; S/2)
2. Zein funtzio du sarrerako beltzez jantzitako agureak ? (L/2 ; S/2)
3. Zer adierazten dute « ... uhainak laban bortitz batez bezala ebakitzen ziren unziaren aurrean » eta « Gorputz indartsu eta harro bat zen Acushnet... » baliabide estilistikoak ? Zein baliabide diren zehaztuko duzu. (L/2 ; S/3)
4. Azter ezazu ondoko irudia : « ... izarrak beren azken keinuak egiten, olatu malenkoniatsuak. » (L/2)
5. Zein dira azken paragrafoan zerbait gertatzen zela erakusten zuten keinuak? (L/2;S/3)

II - ADIERAZPEN PERTSONALA : (10 puntu)

Les candidats de la série S répondent à une question au choix.

1. Testu horren segida asma ezazu. (L5)
2. Acushnet itsasuntziko marinel baten gogoetak idatz itzazu. (L5)

BACCALAURÉAT GÉNÉRAL ET TECHNOLOGIQUE

ÉPREUVE : **BASQUE (Batua)**

Ce sujet comporte deux pages.

Page 2/2